

# HETEROPTERUS

GIPUZKOAKO ENTOMOLOGIA ELKARTEA  
ASOCIACIÓN GIPUZKOANA DE ENTOMOLOGÍA  
Nº 10 Zkia. - Julio 2003 Uztaila



EN UNA SELVA AL SUR  
de PERÚ SE CATALOGARON  
la friolera de 1200  
ESPECIES DE MARIPOSAS.

Los insectos que  
ponen los huevos  
más grandes son  
Los escarabajos  
cerambícidos  
Titanus giganteus:  
10,2 mm.



**Las avispas solitarias  
son capaces de contar  
el número de orugas  
vivas que dejan como  
alimento en las celdillas  
en las que han puesto  
los huevos. Lo hacen  
siempre con un número  
exacto: 5, 12 ó 24.**



La  
reina de  
la termita  
**Macrotermes**  
puede  
poner  
40.000  
huevos  
al día.

**Las larvas  
de libélula  
son consideradas  
un  
manjar en  
Nueva Guinea**



# HETEROPTERUS

GIPUZKOAKO ENTOMOLOGIA ELKARTEA  
ASOCIACIÓN GIPUZKOANA DE ENTOMOLOGÍA

Argitaratzailea / Edita:  
Gipuzkoako Entomologia  
Elkartea - Asociación  
Gipuzkoana de Entomología

Lege-gordailua / Depósito  
legal:  
SS - 1.378/99

ISSN: 1576-1819

Erredakzio taldea /  
Comité de redacción:

Mónica Menéndez  
Arantza Oyarbide  
Faustino Uranga  
Imanol Zabalegui

Azala / Portada:  
Faustino Uranga

Dohainikako argitalpena bazkide,  
Gipuzkoako Eskola eta Udale-  
txeentzat / Publicación gratuita  
para los socios, Colegios y  
Ayuntamientos de Gipuzkoa.

## HETEROPTERUS

Egoitza soziala/Sede social:  
OIARTZUN (Gipuzkoa)

Gutunak helbide honetara bidali  
behar dira / Toda la correspon-  
dencia debe enviarse a:

## HETEROPTERUS

Apdo. 193 P.K.  
20120 HERNANI (Gipuzkoa)  
☎ 943 331 300  
✉ heteropterus@teleline.es

## AURKIBIDEA – INDICE

	<u>Orr. / Pág.</u>
<b>Editoriala / Editorial</b> .....	4
<b>Elkarrizketa / Entrevista</b> .....	5-8
Miriam Moreno	
<b>Gipuzkoako intsektuak / Insectos de Gipuzkoa</b> .....	9-20
<b>Internet: Orri interesgarriak / Páginas de interés</b> .....	21-22
Mónica Menéndez	
<b>Minuziaren bertsioa / La versión de la minucia</b> .....	23-25
Santiago Pagola Carte	
<b>Intsektuekin jolasean / Jugando con los insectos</b> .....	26
Faustino Uranga	

## EDITORIALA - EDITORIAL

7. zenbakiko editorialaren ariari jarraituko diogu gaurkoan, bertan zera jartzen genuen: gipuzkoako udalen baten laguntzarekin gure urrengo helburutako bat ondo egokitutako lokal iraunkor bat lortzea zela.

Urte bat baino gehiago igaro da, baina azkenean esan dezakegu Oiartzungo Udalari esker lokal bat badaukala. Ergoiengo bailarako Pagoaldea Poligonoko 45. lokala da hau.

Han biltzen gara, liburutegi entomologiko bat osatzen ere ari gara beste elkarteekin trukatzan ditugun liburu eta aldizkariekin, intsektuak gordetzeko gela egokitu bat ere badaukagu, ...

Hau da, pausoka pausoka gure xedeak lortzen goaz eta lokal batek ematen duen egonkortasunarekin beste helburu berri batzuk jarriko ditugu (idea asko ditugu bueltaka), piskanaka-piskanaka kontatuko dizkizuegu.

Seguiremos un poco con el hilo de la editorial del nº 7, en el que se decía que nuestro próximo objetivo era el de intentar conseguir una sede estable y bien acondicionada, con la ayuda de algún ayuntamiento gipuzkoano.

Ha pasado más de un año, pero por fin podemos daros la noticia que disponemos de un local cedido por el Ayuntamiento de Oiartzun, para uso de la Asociación Gipuzkoana de Entomología. Está situado en el barrio de Ergoien, en el Pabellón Pagoaldea, local nº 45.

Allí nos reunimos, estamos formando una biblioteca entomológica con libros y revistas que recibimos del intercambio con otras asociaciones, también tenemos una habitación acondicionada para guardar los insectos, etc.

En definitiva, paso a paso se van cumpliendo los objetivos propuestos, y ahora ya con estabilidad en el local de Oiartzun, nos propondremos nuevas metas (tenemos muchas ideas en la cabeza), ya os las iremos contando poco a poco.

Bazkide egiteko datuak / Datos para hacerse socio

Izen Abizenak / Nombre y Apellidos .....

Helbidea / Dirección .....

Herria / Localidad ..... KP/CP.....

Bazkide / Socio: 12 Euro urteko / anuales

Bazkide gaztea / Socio juvenil: 9 Euro urteko / anuales

### “HETEROPTERUS”

**Gipuzkoako Entomologia Elkarte -  
Asociación Gipuzkoana de Entomología**

Egoitza soziala/Sede social: OIARTZUN (Gipuzkoa)

✉ Gutunak / Correspondencia: Apdo. 193 P.K.

20120 HERNANI (Gipuzkoa)

☎ 943 331 300

💻 heteropterus@teleline.es

Orri hau ez baduzu moztu nahi fotokopia batean edo paper batean bidali ditzakezu zure datuak. / Si no quieres cortar esta hoja puedes fotocopiarla o simplemente mandarnos tus datos escritos en una hoja.

# ELKARRIZKETA - ENTREVISTA

Egilea - Entrevistadora:  
**Miriam Moreno**

**IÑIGO UGARTE SAN VICENTE, ENTOMÓLOGO FORMADO EN AGURAIN, Y DEDICADO AL ESTUDIO DE LOS CURCULIÓNIDOS: “ME APASIONA CONOCER EL MUNDO NATURAL EN EL QUE VIVO”**

**IÑIGO UGARTE SAN VICENTE, AGURAINEN HEZITAKO ENTOMOLOGOA, ETA KURKULIONIDOAK IKERTZEN IHARDUTEN DUENA: “IZUGARRI ATSEGIN DUT INGURATZEN GAITUEN MUNDU NATURALA EZAGUTZEA”**

Gaurkoan naturaren ikertzaile bat elkarrizketatuko dugu, arlo honetako beste asko bezala bezala autodidakta dena; bere ezagutza gehienak berak mendian egindako lan bakartiari esker lortu ditu, alegia. Mendira berarekin joatea ikasgai magistral bat bezalako da; landare bakoitza, lore bakoitza, intsektu bakoitza... ezagutzen baititu.

Iñigo Ugartek 31 urte ditu, Agurainen bizi da eta entomologiarekiko grña, merkataritza-gune bateko lanarekin batera eramaten du.

—*Heteropterus*: Nondik edo nola sortu zen zuregan natura eta intsektuekiko zaletasun bori?

—Iñigo Ugarte: Txikitatik nire herri inguruko landarediarekiko begirunea izaten irakatsi ziguten ikastolan. Nire afizio hau, gai honek liluratzen zuen andereño bati zor diot batez ere, berarekin herbario bat egitera ere iritsi ginen ikastolako kideak. Nik orduan 10 edo 11 urte nituen. Nire aita ere mikologiaren eta instektuen zale handia da, eta berak ere asko lagundu dit.

En esta ocasión entrevistamos a un estudioso de la naturaleza que, como tantos en este campo, es autodidacta, y debe la mayor parte de sus conocimientos a su experiencia de campo y labor de búsqueda independiente. Se trata de una de estas personas con las que una salida al campo se convierte en una clase magistral ya que conoce cada planta, cada flor, cada insecto...

Iñigo Ugarte, de 31 años, reside en Agurain, y compagina su pasión por la entomología con su trabajo en unos grandes almacenes.

—*Heteropterus*: ¿Cómo comenzó tu afición por la naturaleza y los insectos?

—Iñigo Ugarte: Desde muy pequeño me inculcaron en la ikastola las ganas por conocer la flora de los alrededores de mi pueblo. Llegamos incluso a componer un herbario con una andereño a la que le apasionaba especialmente el tema y a la que debo en gran parte esta afición. Yo tenía 10 u 11 años. Mi padre también es un gran aficionado a los insectos y a la micología y me ha apoya-

—*Zergatik ankeratu zenituen kurkulionidoak?*

—Oso garbi neukan mundu naturalari buruz ahalik eta gehien ikasi nahi nuela. Iritsi zen momentu bat landareei buruz ia dena banekiena, orduan tximelekin jarraitu nuen eta azkenik kakalardoekin hasi nintzen, kurkulionidoetan espezializatuz. Espezie asko daude, oso talde zaila da. Mundu osoan espezie gehien dituen koleopteroen familia da (100.000 bat) eta Euskal Herrian ere berdin gertatzen da; hau da, espezie gehien dituen animalien familia da, hain zuzen ere horrek erakarri ninduen, hainbeste izateak eta haue-taz hain gutxi jakiteak.

—*Zeintzu dira kurkulionido baten ezangarri nagusiak?*

—Muturra tronpa itxurakoa dute eta antenak orokorrean ukondotuak dituztela. Gehienak hegan egiten dute, baina espezie asko terrikolak dira, hau da, lurzoruan bizi direnez hegoak desagertu zaizkie. Ia espezi guztiak fitofagoak dira, beraz landareen zenbait zati janez elikatzen dira: hostoak, zurtoinak, loreak, sustraiak...

—*"Izurrite" bitza erabili al daiteke familia bonetaz bitz egiterakoan?*

—Euskal Herrian kurkulionidoen 700 bat espezie ditugu eta, nire ustez, horietatik hamar bat izango dira izurrite modura agertzen direnak, beraz oso gutxi. Batzuk mahatsondoari erasotzen diote, adibidez, baina sortzen duten kaltea oso txikia da beste espezie batzuen aldean; esate baterako, matxinsaltoak askoz ere kaltegarriagoak dira.

—*Espezie hauetakoren bat egon al liteke galtzeko zorian?*

—Edozein espezie gelditzen da des-

do mucho.

—*¿Porqué elegiste los curculiónidos?*

—Yo tenía claro que quería aprender todo lo posible sobre el mundo natural. Llegó un momento en que sobre las plantas conocía casi todo, luego seguí con las mariposas y finalmente los escarabajos, especializándome en curculiónidos. Son un grupo complicado porque tiene muchas especies. Es la familia de coleópteros que más especies tiene a nivel mundial (unas 100.000) y en el País Vasco es la familia de animales con más especies; precisamente me atrajo por su gran número y por lo poco que se sabe sobre ella.

—*¿Cuáles son las características principales de un curculiónido?*

—Lo que caracteriza a los curculiónidos es que su morro termina en trompa y las antenas normalmente son acodadas. La mayoría son voladores aunque también hay muchas especies que son terrícolas, viven en la tierra y les han desaparecido las alas. La mayoría de las especies son fitófagas, es decir, se alimentan de diversas partes de las plantas: las hojas, los tallos, las

flores, las raíces...

—*¿Se podría hablar de "plagas" respecto a esta familia?*

—En el País Vasco se estima que hay unas 700 especies de curculiónidos y yo calculo que, de todas ellas, que actúen como plagas habrá unas diez, muy poquitas. Algunas que atacan a la vid, por ejemplo, pero el daño que producen es mínimo comparado con otras especies; el saltamontes es mucho más dañino.



Foto: S. Pagola Carte

agertzeko zorian bere habitata aldatuz gero. Espezie batzuk oso hedatuta daude, baina beste batzuk oso leku gutxitan aurkitzen dira, landare jakin batez elikatzen baitira. Beraz, habitat horren narriaduraren ondorioz, kurkullionidoa arriskuan egon daiteke, baina gaur egun, espezie hauetakoren bat galtzeko zorian dagoela adierazten duen daturik ez daukat.

—*Nola moldatzen zara informazio hain espezializatua aurkitzeko?*

—Animalien nahiz landareen edozein talderekin lan egiteko behar-beharrezkoa da bibliografia. Gaiari buruz agertzen den guztia: liburuak, aldizkariak... lortzen saiatzen naiz. Gainera, Amalur Natura Elkarteke kidea naiz, eta honek asko laguntzen dit lan hau aurrera eramateko orduan. Elkarte hau 1996. urteko maiatzean sortu zen, Aguraingo eta Arabaren ekialdeko natura aztertu, erakutsi eta babesteko helburuarekin. Natura ikertzeaz arduratzen den jendeak osatzen du taldea, eta urtean zehar hainbat ekintza antolatzen ditugu: perretxikoak biltzeko mendi irteerak, basalandareen erakusketak, irteera ornitologikoak... Arabako Foru Aldundiak eta Aguraingo Udalak emandako diru laguntzekin egiten dugu aurrera.

—*Bueltatu gaitzen berriro kurkullionidoetara. Kontatuko al diguzu zer edo zer gebiago bere morfologiari buruz?*

—Aldakortasun handia dago batetik bestera, bai neurrian, 1 eta 35 mm bitartekoak izan baitaitezke, bai itxuran: gorputza borobila, obalatu, eta abar izan baitezakete. Era berean, kolore askotarikoak dira (beltzak, marroiak,

—*¿Alguna de estas especies podría estar en peligro de extinción?*

—Cualquier especie está en peligro de desaparecer si su hábitat se altera. Hay especies muy extendidas pero también existen otras muy localizadas porque están íntimamente relacionadas con una planta. Si ese hábitat se altera el curculiónido puede estar en peligro, pero actualmente no tengo datos de que ninguna de estas especies esté amenazada.

—*¿Cómo te las arreglas para encontrar información tan especializada?*

—Para trabajar con cualquier grupo animal o vegetal es básica la bibliografía. Intento conseguir todo lo que se publica sobre el tema: libros, revistas... Además formo parte la una asociación,



Foto: S. Pagola Carte

A m a l u r  
N a t u r a  
Elkartea, que me ayuda mucho en esta labor. Esta asociación se formó en mayo de 1996 con el objetivo de estudiar, divulgar y proteger la naturaleza en

el oriente de Álava, en Agurain. Esta formada por gente sensibilizada con estudiar el medio natural y realizamos diferentes actividades: salir a por setas, exposiciones de plantas silvestres, salidas ornitológicas... Nos subvenciona la Diputación Foral de Alava y el Ayuntamiento de Agurain.

—*Volvamos a los curculiónidos. ¿Nos cuentas algo más de su morfología?*

—Su tamaño va desde 1 mm hasta 35 mm. Hay infinidad de formas; pueden ser ovalados, redondeados, etc. La coloración también es muy diversa (negro, marrón, azul...). Por la forma en que ha sido atacada una planta se puede llegar a saber qué especie se ha alimentado de ella.

urdinak...) Landare bat nola jan duten aztertua, zein espeziek jan duen jakitea ere badago.

—*Denbora gehien non ematen duzu, liburu artean ala mendian?*

—Saiatzen naiz ahal dudan denbora gehien mendiko laginketei eskaintzen. Horregatik, ahal dudan guztietan alde egiten dut. Laginketak urte osoan zehar egin daitezke, baina udaberriari agertzen dira banako gehienak, batez ere maiatzetik aurrera.

—*Egia al da askotan intsektu batek landare jakin batekin baino ez duela loturarik?*

—Zein landaretan ibili ohi den jakinez gero, errazagoa da intsektu bat aurkitzea. Horrek bilaketa asko errazten du. Esate baterako, badakigu haritzek 30 kurkulionido espezie desberdin eduki ditzakeela, bai eta pagoek ere.

—*Zein datu hartzen dituzu ale bat aurkitzen duzunean?*

—Ahalik eta informazio gehien biltzen saiatzen naiz. Lekua, flora, mikroingurua... zehazten. Intsektuaren ezaugarri fisikoak ia-ia garrantzi txikien dutena da. —*Eusko Jaurlaritza eta Arabako Foru Aldundirako bainbat ikerketa egin dituzu.*

—Arabako ekialdeko Entzia Mendizerrako koleopteroen katalogo bat egin nuen. Urte bakar batean egindako azterketan 222 espezieren berri ematea lortu nuen. Emaitza oso interesgarriak eman zituen lanak, hala nola espezie bitxi batzuk eta Euskal Herrian gutxitan aipatuak. Aldizkari espezializatueta ere argitaratu ditut artikuluak.

—*Aurrera begira zein egitasmo dituzu?*

—Euskal Herriko kurkulionidoen fauna ikertzea da nire ilusiorik handiena eta liburu bat argitaratzea, zeinak espezie guztiak eta haien berezitasunak ezagutzeko aukera emango dena. Niretzat ez dago ezer atsegingarriagorik inguratzen gaituen mundu naturala sakontasunean ezagutzeko baino.

—*¿Pasas más tiempo en la biblioteca o en el monte?*

—Intento hacer muestreos en el monte lo más posible. En cuanto puedo me escapo. Prospecciones se pueden hacer todo el año pero cuando más individuos encuentras es en primavera, a partir de mayo es cuando su actividad es mayor.

—*¿Es verdad que muchas veces un insecto está relacionado con una planta concreta?*

—Para ahorrar tiempo en la búsqueda es importante saber en qué plantas anda. Esto facilita mucho la captura. Por ejemplo, los robles pueden llegar a albergar hasta 30 especies diferentes de curculiónidos, y las hayas también.

—*¿Qué datos tomas cuando encuentras un ejemplar?*

—Intento recoger la mayor cantidad posible de información. Concretar el lugar, la flora, el microambiente... Las características físicas del insecto casi es lo menos importante.

—*Has realizado numerosos estudios para el Gobierno Vasco y la Diputación de Álava.*

—Hice un Catálogo sobre los coleópteros de la Sierra de Entzia, al oriente de Álava. En un año de estudio conseguí registrar 222 especies. De ahí surgieron cosas muy interesantes como especies singulares y poco citadas en el País Vasco. También he publicado artículos en revistas especializadas.

—*¿Qué proyectos de futuro planeas?*

—Mi gran ilusión es estudiar la fauna de curculiónidos de Euskal Herria y publicar un libro que permita conocer todas las especies y sus características. Para mí no hay nada más gratificante que conocer en profundidad el medio natural que nos rodea.



Foto: S. Pagola Carré

LEPIDOPTERA

NOCTUIDAE

*Aedia leucomelas*

(Linnaeus, 1758)



Hego-luzera : 28-33 mm.  
Helduak bi belaunaldi ditu maiatzaren bukaeratik irailera. Gauekoa da.  
Baso heze, landare asko dauden bide eta herri inguruetan bizi dira. Beldarrak bizkarraldean zirkulu beltzez osatutako ilara bat du, ilararen muturrean banda laranja bat duelarik. Azken aurreko segmentuan beltz koloreko puntu handiz inguratutako zirkulu zuri bat du.  
Beldarrak ezkerre beltza (*Convolvulus arvensis*), *Calystegia* eta abar, janez elikatzen dira. Gipuzkoan oso urria da.

Tamaño: 28-33 mm.  
Vuela en dos generaciones: de finales de mayo hasta septiembre. Actividad nocturna. Frecuenta los bosques húmedos, senderos con abundante vegetación y también los alrededores de las zonas habitadas. Las orugas tienen una fila dorsal de círculos negros interrumpida por una banda naranja, y en el penúltimo segmento, un círculo blanco rodeado de enormes puntos negros.  
Las orugas se alimentan de Correhuela (*Convolvulus arvensis*), *Calystegia*, etc.  
Es muy escasa en Gipuzkoa.

LEPIDOPTERA

NOCTUIDAE

*Axylia putris*

(Linnaeus, 1761)




Hego-luzera : 27-32 mm.  
Helduak maiatzetik abuztura agertzen dira. Gauekoa da.  
Parke, lorategi, eta ibai, bide eta basoen erretzetan bizi dira. Pausatuta hegoak gorputzaren inguruan biribiltzen ditu, adaska baten itxura hartuz. Hartara txoriek ez dute ikusten. Beldarra arre grisaska da, marka beltzak eta atzeko muturrean konkor bat dituelarik.  
Beldarrak polifagoak dira; uztao handia, plantaina eta abar janez elikatzen dira. Gipuzkoan oso urria da.

Tamaño: 27-32 mm.  
Vuela de mayo a agosto. Actividad nocturna. Habitan lindes de bosques y de caminos, riberas de ríos, jardines y parques. En estado de reposo enrolla las alas alrededor del cuerpo imitando a un trocito de madera, pasando así desapercibido para los pájaros. La oruga es de color pardo grisáceo moteado con marcas negras y una protuberancia en el extremo posterior.  
Las orugas son polífagas; se alimentan de acedera, llantén, etc.  
Es muy escasa en Gipuzkoa.

# GIPUZKOAKO INTSEKTUAK - INSECTOS DE GIPUZKOA



Hego-luzera : 38-42 mm.  
Helduak maiatzetik urrira bi belunaldi ditu. Gauekoa da.  
Lur zabalean eta herri inguruan hegatu ohi da. Basoetan zertxobait arraroagoa da. Aurreko hegoetako "C" hizkia itxurako marka beltzak direla eta, hartzen du bere izena. Zihur asko, bere moldaerei esker, laboreetako noktuidorik arruntena da.  
Beldarrak polifagoak dira; barazkiak, zerealak, bazka-landareak, mahatsondoa, fruta-arbola batzuk eta abar janez elikatzen dira.  
Gipuzkoan oso urria da.



Hego-luzera : 35-40 mm.  
Helduak apiriletik urrira hainbat belunaldi ditu. Gauekoa da.  
Landa, belardi, parke, lorategi eta basoaren inguruan bizi da. Espainia osoan arrunta da tximeleta hau. Genero honetako beste espezie batzuekin gertatzen den bezala laboreetan kalte handiak sor ditzake. Argi-tranpak erabilia uztail eta abuztuan erraz harrapatzen dira.  
Beldarra arre argi kolorekoa da eta hainbat gramineo janez elikatzen da.  
Gipuzkoan oso urria da.

LEPIDOPTERA

NOCTUIDAE

*Xestia c-nigrum*

(Linnaeus, 1758)

Tamaño: 38-42 mm.  
Vuela en dos generaciones, de mayo hasta octubre. Actividad nocturna.  
Vuela en zonas humanizadas y campos abiertos, más rara en bosques. Su nombre hace referencia a la "C" de color negro que presenta en sus alas anteriores. Seguramente, y gracias a su adaptación, es el noctuido más abundante en las tierras cultivadas.  
Las orugas son polífagas, es decir, se alimentan de: hortalizas, cereales, plantas forrajeras, viñas, algunos frutales, etc.  
Es muy escasa en Gipuzkoa.

LEPIDOPTERA

NOCTUIDAE

*Mythimna vitellina*

(Hübner, [1808])


Tamaño: 35-40 mm.  
Vuela en varias generaciones solapadas desde abril hasta octubre. Actividad nocturna.  
Habitan cercanías de bosques, prados, zonas rurales, parques y jardines. Es una mariposa frecuente por toda España. Al igual que otras especies de su género puede causar grandes destrozos en los cultivos. En julio y agosto se capturan fácilmente con las trampas de luz.  
La oruga tiene un color pardo pálido y se alimenta de diversas gramíneas.  
Es muy escasa en Gipuzkoa.

## LEPIDOPTERA

### ARCTIIDAE

#### *Spilosoma lubricipeda*

(Borkhausen, 1758)



Hego-luzera : 30-42 mm.  
Helduak maiatzetik abuztura agertzen dira.  
Gaukoa da.  
Arren antenak orrazi-formakoak dira; emearenak, filiformeak. Espezie hau leku beretan bizi den *S. luteum*-az (azken hau horia) baliatzen da; izan ere, txoriek oso zapore desatsegina duen *S. luteum*-a janda, mementu hartatik aurrera ez dituzte ez bata, ez bestea jango, oso antzekoak baitira. Beldarrak polifagoak dira asuna, txikori-belarra, plantaina, *Polygonum* generokoak, laharra eta abar janez elikatzen dira. Gipuzkoan urria da.

Tamaño: 30-42 mm.  
Vuela de mayo a agosto. Actividad nocturna  
Los machos tienen las alas pectinadas mientras que las hembras las tienen en forma de hilo. Suele compartir el área de vuelo junto a la *S. luteum*, de color amarillo, de la cual se aprovechan ya que tienen un sabor mucho más desagradable, lo que hace que los pájaros no las coman ni a unas ni a otras.

Las orugas son polífagas, se alimentan de ortiga, diente de león, llantén, *Polygonum*, *Rubus*, etc.

Es escasa en Gipuzkoa.

## LEPIDOPTERA

### ARCTIIDAE

#### *Miltochrista miniata*

(Forster, 1771)



Hego-luzera : 23-27 mm.  
Helduak ekainetik abuztura agertzen dira.  
Gaukoa da.  
Baso hostogalkorrak edo mistoak nahiago ditu hezetasun nahikoa egonda. Arra eta emea ia-ia berdinak dira, abdomenaren orban beltz batek bakarrik bereizten dituelarik. Beldarrak lehen estadioetan likenez elikatzen dira; negua pasata, haritz eta urkiaren hostoet. Gipuzkoan urria da.

Tamaño: 23-27 mm.  
Vuela entre junio y agosto. Es una mariposa de actividad nocturna.  
Prefieren los bosques de caducifolios o mixtos siempre que haya suficiente humedad.  
Macho y hembra son casi idénticos diferenciándose en una mancha negra debajo del abdomen.

Las orugas se alimentan en los primeros estadios, de líquenes y tras la hibernación de hojas de roble y abedul.

Es escasa en Gipuzkoa.

# GIPUZKOAKO INTSEKTUAK - INSECTOS DE GIPUZKOA



Hego-luzera : 30-35 mm.  
Helduak bi belaunaldi ditu: apiriletik ekainera eta uztailetik irailera, azken hau bestea baino anitzagoa.

Arra eta emea oso antzekoak dira. Ale-aldakortasun handia du espezie honek, puntu beltzak direla eta. Bere kolore gorri deigarriak zapore desatseginekoa dela adierazten die txoriei.

Beldarrak orojaleak dira; zerbait azpimarratzekoan asuna eta txikori-belarra lirateke; guztiz garatuta pasatzen dute negua, arre koloreko kapulu bigun baten barruan krisalida bihurtuta. Gipuzkoan maiztasun gutxikoa da.



Neurria: 45-65 mm.  
Helduak ekainetik abuztua agertzen dira. Gauekoa da.

Tximeleta honen hegoetako marrazkia oso aldakorra denez, oso zaila da bi berdín aurkitzea. Beldarrek era askotako landare motzak jaten dituzte, batez ere: *Taraxacum*, *Urtica*, *Euphorbia*, etab; inbernatu egiten dute eta udaberrian jaten hasten direnean oso jatunak dira, horren bata bestea jateraino eraman ditzakete. Hosto lehorrekin eta zetarekin kapulu bat egiten dute, lurreko harri tartean. Gipuzkoan oso urria da.

LEPIDOPTERA

ARCTIIDAE

*Pragmatobia fuliginosa*

(Linnaeus, 1758)

Tamaño: 30-35 mm.  
Vuela en 2 generaciones, de abril a junio y de julio a septiembre. Esta última es más abundante.

Los sexos son muy parecidos. Su llamativo color rojo con puntos negros, con gran variabilidad individual, indica a los pájaros que tiene un sabor desagradable.

La oruga hiberna cuando está completamente desarrollada, crisalidando dentro de un capullo blando y de color pardo; son polívoras, y entre sus preferencias podríamos citar la ortiga y el diente de león.

Es poco frecuente en Gipuzkoa.

LEPIDOPTERA

ARCTIIDAE

*Arctia caja*

(Linnaeus, 1758)

Tamaño: 45-65 mm.  
Vuela de junio a agosto. Actividad nocturna.

El dibujo de las alas de esta mariposa es muy variable, siendo difícil encontrar dos iguales.

La alimentación de las orugas es variada. Come toda clase de plantas bajas, sobre todo: *Taraxacum*, *Urtica*, *Euphorbia*, etc. Estas invernan y cuando empiezan la actividad en primavera, son tan voraces que pueden comerse unas a otras. Crisalidan entre las piedras del suelo formando un capullo con seda y hojas secas.

Es muy escasa en Gipuzkoa.

LEPIDOPTERA

GEOMETRIDAE

*Peribatodes rhomboidarius*

(Denis & Sch., 1775)



Hego-luzera : 30-38 mm.  
Helduak ekainetik irailera agertzen dira. Batzuetan bi belaunaldi ager daitezke. Gauekoa da.  
Genero honetan oso antzekoak diren espezie batzuk daude. Egunez zuhaitzen azalean oso ondo kamuflatzen dira, haiez ikustea ia-ia ezinezkoa delarik. Lorategi, fruta-arbolak dauden baratze eta baso hostogalkorretan bizi dira. Beldarrak zuhaitz hostogalkorrek jaten ditu, batez ere artea eta lizarra; batzuetan fruta- - arbolak ere bai.  
Gipuzkoan urria da.

Tamaño: 30-38 mm.  
Vuela entre junio y septiembre. A veces hay 2 generaciones. Actividad nocturna.  
Se puede confundir con otras especies parecidas del mismo género. Habitan bosques caducifolios, huertos de frutales y parques. Durante el día se camuflan perfectamente sobre la corteza de los árboles, siendo muy difíciles de ver. La oruga se alimenta de árboles caducifolios, destacando la encina y el fresno. Es más rara sobre frutales.  
Es escasa en Gipuzkoa.

LEPIDOPTERA

GEOMETRIDAE

*Odontopera bidentata*

(Clerch, 1759)



Hego-luzera : 32-40 mm.  
Helduak maiatzetik uztaileira agertzen dira. Gauekoa da.  
Helduen kolorea aldakorra da; zuri zikinetik beltzara, azken hau bereziki iparraldean. Hau dela eta, hainbat subespezie aurki daitezke. Baso sasitsueta bizi dira.  
Beldarrak hainbat zuhaitz eta zuhaixka jaten ditu. Adaska baten itxurakoa, arre edo berde kolorekoa da eta ekainetik abuztura gartzten da.  
Gipuzkoan oso urria da.

Tamaño: 32-40 mm.  
Vuela de mayo a julio. Actividad nocturna.  
Habitan zonas boscosas y con matorrales. El color puede variar entre el blanco sucio y el negro, este último especialmente en la zona norte. Ello hace que haya varias subespecies. La oruga se alimenta de diversos árboles y arbustos. Imita a una ramita, es de color pardo o verde y se desarrolla de junio hasta agosto. Es muy escasa en Gipuzkoa.

# GIPUZKOAKO INTSEKTUAK - INSECTOS DE GIPUZKOA



Hego-luzera : 15-20 mm.  
Heldua apiriletik irailera agertzen da. Bi belau-  
naldi ditu. Gauekoa da.  
Sexua bereiztekotan genitalia egin behar da.  
Lorategi eta baso beroetan bizi dira. Geldirik  
hegoak posizio tipikoan daude; *Eupithecia*  
generoan, aldiz, hegoak zabaldua geratzen  
dira.  
Beldarra berdea da, bizkarralean hiru lerro  
gorrizka dituelarik. Hariqueta, intsusa eta laha-  
rra janez elikatzen da.  
Gipuzkoan oso urria da.



Hego-luzera : 20-25 mm.  
Helduak bi belunaldi ditu: lehena udaberriaren  
hasieratik udaren erdialdera eta bigarrena uda  
betean. Egunkoia nahiz gauekoa da.  
Alearen arabera orban ilunen zabalera oso  
aldakorra da. Emeek hegoetan ez dute erdiko  
banda beltzik.  
Beldarra ahuntz-sahatsa (*Salix caprea*), lertxu-  
na (*Populus tremula*), urkia eta hurritza janez  
elikatzen da. Berde urdinska kolorekoa, bizka-  
rrallean luzetara hiru marra dituelarik.  
Krisalidak lurtean pasatzen du negua.  
Gipuzkoan oso urria da.

LEPIDOPTERA

GEOMETRIDAE

*Chloroclystis v-ata*

(Hawort, 1809)

Tamaño: 15-20 mm.  
Vuela de abril a septiembre. Dos generacio-  
nes. Actividad nocturna.  
La determinación del sexo es muy difícil sien-  
do necesario realizar una genitalia. Habitan en  
bosques calurosos y jardines. En estado de  
repose, presenta la típica posición de las alas,  
al contrario que el género *Eupithecia*, que las  
dispone separadas.  
Las orugas son verdes con tres líneas rojizas  
en el dorso. Se alimentan de hierba del por-  
diosero, eupatorio, zarza y saúco.  
Es muy escasa en Gipuzkoa.

LEPIDOPTERA

GEOMETRIDAE

*Lomaspilis marginata*

(Linnaeus, 1758)

Tamaño: 20-25 mm.  
Vuela en dos generaciones: La 1.<sup>a</sup> de inicios  
de primavera a mediados de verano, y la 2.<sup>a</sup> en  
pleno verano. Actividad tanto nocturna como  
diurna.  
La extensión de las manchas oscuras es muy  
variable según el ejemplar. Las hembras care-  
cen de la banda negra del centro de cada ala.  
La oruga se alimenta de: Sauce cabruno (*Salix  
caprea*), álamo temblón (*Populus tremula*),  
abedul y avellano. Es de color verde azulado  
con 3 líneas longitudinales sobre el dorso. La  
crisálida hiberna en la tierra.  
Es muy escasa en Gipuzkoa.

COLEOPTERA

CERAMBYCIDAE

*Cerambyx scopoli*

(Füessly, 1775)



Neurria: 15-28 mm.

Helduak maiatzetik irailera agertzen dira. Kolore beltz disdiratsua. Luzanga eta hanka finekoa. Elitroetan uniformeki zabaldutako zimurdurak dituzte.

Larba genero desberdinetako zuhaitz eta zuhaiska janez elika daiteke, adibidez: *Prunus*, *Malus*, *Quercus*, *Ulmus*, *Castanea*, *Fagus*, *Acer*, *Fraxinus*, *Corylus*, *Salix*, *Populus*...

Helduak egunez ateratzen dira, eguzki betebetan, eta askotan unbeliferen infloreszentziara jotzen dute, han parekatzen direlarik. Gipuzkoan urria da.

Tamaño: 15-28 mm.

Aparece de mayo a septiembre. Su color es totalmente negro, brillante. Alargado y con las patas finas. Los élitros tienen una rugosidad uniformemente repartida. Su larva puede alimentarse de muchos árboles y arbustos de diversos géneros, como por ejemplo: *Prunus*, *Malus*, *Quercus*, *Ulmus*, *Castanea*, *Fagus*, *Acer*, *Fraxinus*, *Corylus*, *Salix*, *Populus*...

Los adultos son de actividad diurna, vuelan a pleno sol y acuden frecuentemente a las inflorescencias de las umbelíferas donde se aparean. Es escasa en Gipuzkoa.

COLEOPTERA

CERAMBYCIDAE

*Lamia textor*

(Linnaeus, 1758)



Neurria: 15-29 mm.

Heldua maiatzetik uztaiera agertzen da. Beltza, ondo zehaztu gabeko pubeszentzia horiaz estalia, honek alde batzuetan urrekolo-reko orban txikiak sortu ditzake. Antena sendoak, eta gorputza baino zerbait motzagoak. Larbak makalen adar eta enbor zaharrak janez elikatzen dira (*Populus nigra*, *P. tremula*, edo *P. alba*). 3 edo 4 urte behar dituzte garatzeko. Gipuzkoan oso urria da.

Tamaño: 15-29 mm.

Aparece de mayo a julio. De color negro, cubierto de una pubescencia amarillenta muy difusa que en algunas zonas forma pequeñas manchas doradas. Antenas robustas, algo más cortas que la longitud del cuerpo. Sus larvas se alimentan de las viejas ramas y de las bases de los grandes troncos viejos de chopos (*Populus nigra*, *P. tremula*, o *P. alba*). Su desarrollo puede durar 3 ó 4 años. Es muy escasa en Gipuzkoa.

# GIPUZKOAKO INTSEKTUAK - INSECTOS DE GIPUZKOA



COLEOPTERA

CERAMBYCIDAE

*Anaesthetis testacea*

(Fabricius, 1781)

Neurria: 5-10 mm.

Helduak maiatzetik uztailera agertzen dira.

Beltzaxka, arre koloreko elitroak eta antenak grotutza baino zertxobait motzagoak ditu.

Helduak ilunabarrean egiten du hegan.

Bi urteko ziklo biologikoa du.

Larbak oso polifaboak dira, eta honako landare hauek elikatzen dira: *Juglans*, *Castanea*, *Alnus*, *Betula*, *Salix*, *Corylus*, *Populus*, *Fagus*, *Ulmus*, *Platanus*, *Pyrus*, *Malus*, *Rosa*, *Tilia*...

Gipuzkoan oso urria da.

Tamaño: 5-10 mm.

Aparecen de mayo a julio.

Negruzco con los élitros de color pardo y antenas ligeramente más cortas que el cuerpo.

Los adultos vuelan al anochecer.

Su ciclo biológico dura dos años.

Sus larvas muy polípagas han sido citadas sobre *Juglans*, *Castanea*, *Alnus*, *Betula*, *Salix*, *Corylus*, *Populus*, *Fagus*, *Ulmus*, *Platanus*, *Pyrus*, *Malus*, *Rosa*, *Tilia*...

Es muy escasa en Gipuzkoa.



COLEOPTERA

CERAMBYCIDAE

*Aredolpona rubra*

(Linnaeus, 1758)

Neurria: 10-20 mm.

Heldua apiriletik abuztura agertzen da.

Itxura sendo eta indartsua. Arrek pronotoa beltza eta elitroak hori gorrazak. Emeek pronotoa gorri orbandua, elitroak zabalagoak eta odol kolorekoak

Larbak hildako koniferen adar eta enborretan bizi dira. Garatzen bi urte behar dituzte.

Eguzkiak bete-betean jotzen duenean helduek loreetara jotzen dute.

Guk beti pinudietan edo pinudi inguruetan aurkitu ditugu.

Gipuzkoan urria da.

Tamaño: 10-20 mm.

Aparece de abril a agosto.

Aspecto robusto y fuerte. Los machos tienen el pronoto negro y los élitros amarillo rojizos. Las hembras, el pronoto negro manchado de rojo y los élitros más anchos de color rojo sangre.

Sus larvas viven en ramas y troncos muertos de coníferas. Su desarrollo dura dos años.

Los adultos acuden a las flores, volando a pleno sol.

Nosotros lo hemos encontrado siempre en los pinares o en sus cercanías.

Es escasa en Gipuzkoa.

COLEOPTERA

CERAMBYCIDAE

*Cribroleptura stragulata*

(Germar, 18)



Neurria: 10-15 mm.

Helduak apiriletik abuztura agertzen da. Elitroetako banda beltzak oso aldakorak dira. Honek, balio sistematikorik gabeko era askotako deskribapenak eragin ditu. Ale batzuk guztiz beltzak izan daitezke.

Larbak hildako konifero batzuetan bizi dira: *Pinus* eta *Abies*.

Helduak egun eguzkitsuetan loreetara jotzen dute, batez ere, unbeliferoetara. Gipuzkoan oso urria da.

Tamaño: 10-15 mm.

Aparece de abril a agosto.

Las bandas negras de los élitros son muy variables. Esto ha dado lugar a la descripción de múltiples formas sin valor sistemático. Algunos ejemplares pueden ser completamente negros.

Las larvas viven en maderas muertas de diversas coníferas como *Pinus* y *Abies*.

Los adultos suelen acudir en días soleados a las flores, principalmente umbelíferas.

Es muy escasa en Gipuzkoa.

COLEOPTERA

CERAMBYCIDAE

*Exocentrus adpersus*

Mulsant, 1846



Neurria: 3-8 mm.

Heldua maiatzetik uztaiera agertzen da. Arre beltzaxka, ile grisez estalitako gunee bartzuekin. Barruko aldean ile luzeak dituzten antenak.

Larba, ondorengo landare hauen adar lehorretan bizi da: *Tilia*, *Quercus*, *Castanea*, *Fagus*, *Alnus*, *Betula*, *Corylus*, *Juglans*, *Rosa*, *Hedera*, etab.

Helduek ilunabarrean egiten dute hegan, egunean zehar, beren apopilo den landarearen azalean ezkutatuta egoten dira.

Gipuzkoan oso urria da.

Tamaño: 3-8 mm.

Aparece entre mayo y julio.

De color pardo negruzco, con zonas cubiertas de pilosidad gris. Antenas con largos pelos en su parte interior.

Su larva vive en ramas secas de: *Tilia*, *Quercus*, *Castanea*, *Fagus*, *Alnus*, *Betula*, *Corylus*, *Juglans*, *Rosa*, *Hedera*, etc.

Los adultos vuelan al anochecer y durante el día permanecen escondidos en la corteza de su planta huésped.

Es muy escasa en Gipuzkoa.

# GIPUZKOAKO INTSEKTUAK - INSECTOS DE GIPUZKOA



Neurria: 5-10 mm.

Heldua maiatzetik abuztura agertzen da.

Beltza pubeszentzia gris eta zurixkarekin. Gorputza baino luzeagoko antenak.

Larbak oso polifagoak direnez, hemengo landare hauetan aurkitu dituzte: *Salix*, *Populus*, *Juglans*, *Corylus*, *Betula*, *Alnus*, *Castanea*, *Quercus*, *Fagus*, *Ulmus*, *Pyrus*, *Malus*, *Acer*, *Fraxinus*, *Robinia*...

Helduak egun eguzkitzuetan egiten dute hegan, emeek arrautzak jarriko dituzten enbor eta adar gainean geldituz.

Gipuzkoan oso urria da.



Neurria: 17-25 mm.

Heldua ekainetik abuztura agertzen da.

Kolore arre-beltza, ilupa edo tomentu grisaska edo horiskaz estalia, orban irregularrak osatuz. Emeen antenak gorputza baino zerbait luzeagoak dira. Arretan gorputzaren bikoitza izatera iritsi daitezke.

Larba koniferoetan bizi da, genero hauetan adibidez: *Pinus*, *Abies*, *Picea*...

Helduek eguzkia bete-betean dagoenean ibiltzen dira hegan eta pinuen enborrean ibiltzea ere gustoko dute.

Gipuzkoan oso urria da.

COLEOPTERA

CERAMBYCIDAE

*Leiopus nebulosus*

(Linnaeus, 1758)

Tamaño: 5-10 mm.

Aparece de mayo a agosto.

Negro, con pubescencia gris y blanquecina. Antenas más largas que el cuerpo.

Las larvas son muy polívoras, han sido citadas sobre: *Salix*, *Populus*, *Juglans*, *Corylus*, *Betula*, *Alnus*, *Castanea*, *Quercus*, *Fagus*, *Ulmus*, *Pyrus*, *Malus*, *Acer*, *Fraxinus*, *Robinia*...

Los adultos vuelan los días soleados, localizándose sobre los troncos y ramas donde las hembras realizan la puesta.

Es muy escasa en Gipuzkoa.

COLEOPTERA

CERAMBYCIDAE

*Monochamus galloprovincialis*

(Olivier, 1795)

Tamaño: 17-25 mm.

Aparece entre junio y agosto.

Coloración pardo-negrucza, recubierta de un tomento grisáceo o amarillento formando manchas irregulares.

Las antenas de las hembras son ligeramente más largas que el cuerpo. En los machos pueden ser el doble de largas.

Su larva vive sobre coníferas de los géneros: *Pinus*, *Abies*, *Picea*...

Los adultos vuelan a pleno sol y les gusta andar sobre los troncos de los pinos.

Es muy escasa en Gipuzkoa.

COLEOPTERA

GEOTRUPIDAE

*Geotrupes mutator*

(Marsham, 1802)



Neurria: 14-26 mm.

Heldua udaberrian eta udaran aurki daiteke. Kolore mate metaliko aldakorra: berdaxka, more edo urdinxka. 9 hildoko elitroak. Behi edo zaldi gorotzetan ikusi daitezke. Habia 25-30 cm-ko sakontasunean osatzen du. Adarrak dituen galeria bat da, jarritako arrautz bakarra aurrera aterata dadin, adar hauetako bakoitza gorotzez ornitua dago. Gipuzkoan oso urria da.

Tamaño: 14-26 mm.

Aparece en primavera y verano. De color metálico mate variable: verdoso, violáceo o azulado. Élitros con 9 estrías. Pueden verse en excrementos de ganado vacuno o equino. Forma el nido hasta 25-30 cm. de profundidad. Es una galería con varias ramas, cada una de las cuales se aprovisiona con excremento destinado a un único huevo. Es muy escasa en Gipuzkoa.

COLEOPTERA

GEOTRUPIDAE

*Trypocopris pyrenaeus*

Charpentier, 1825



Neurria: 10-20 mm.

Heldua udaberrian eta udaran agertzen da. Forma biribildua eta urdin iluna edo beltz disdiratsua. Bobidoen eta ekidoen gorotzak kolonizatzen ditu. Helduek puska txikiak hartu eta pirritan eramaten dituzte lur azpian gordetzera, gero larbentzako elikagai izateko. Arrautzak udan jartzen dituzte eta, negua larba gisa igaro ondoren, ninfosia udaberrian gertatzen da. Gipuzkoan urria da.

Tamaño: 10-20 mm.

Aparece en primavera y verano. De forma redondeada y color azul oscuro o negro brillante. Coloniza excrementos de bóvidos y équidos. Los adultos cogen pequeños trozos y los hacen rodar para enterrarlos y que sirvan de alimento a sus larvas. La puesta se realiza en verano tras pasar el invierno como larva. La ninfosis tiene lugar en primavera. Es escasa en Gipuzkoa.

# GIPUZKOAKO INTSEKTUAK - INSECTOS DE GIPUZKOA



ORTHOPTERA

GRYLLOTALPIDAE

*Grylotalpa grylotalpa*

(Linnaeus, 1758)

Neurria: 50 mm.

Heldua urte guztian aurki daiteke.

Luhartz izenez ezaguna.

Aurreko hegoak gogortuta ditu. Atzekoak, erabat garatuak dituztenez, hegan egin dezakete. Aurreko hanka indartsuekin galeriak egin ditzaketen lur porotsuetan bizi dira.

Intsektuak eta lurreko beste ornogabe batzuk jaten ditu, baita landareen sustraiak ere, horregatik gure baratzetan kalteak eragin ditzake. Emeek 1000 arrautz jar ditzakete.

Gipuzkoan urria da.

Tamaño: 50 mm.

Se puede encontrar durante todo el año.

Llamado grillotopo o alacrán cebollero.

Las alas anteriores están endurecidas. Las posteriores, perfectamente desarrolladas, le permiten volar.

Habita suelos porosos donde excavar galerías con sus poderosas patas anteriores.

Se alimentan de insectos y otros invertebrados del suelo, pero también de raíces de plantas, por lo que pueden ser perjudiciales para nuestras huertas. Las hembras pueden poner hasta 1000 huevos.

Es escasa en Gipuzkoa.



DICTIOPTERA

BLATTIDAE

*Blatta orientalis*

(Linnaeus, 1758)

Neurria: 20-25 mm.

Heldua udaberrian eta udaran agertzen da.

Betiko labezomorroa. Marroi ilun kolorekoa.

Antena luzeak. Hankak arantzez beteak.

Emeek 20tik 50 arrautza bitarte jartzen dituzte kapsula baten barruan. Ziklo biologikoa osatzeko 6aldi desberdin igarotzen dituzte.

Gauetz ateratzen dira. Edozer elikagai jaten dute. Naturan eta gure etxeetan, jan hondarrak aurkitzeko asmotan edozein pitzaduratik sartuta,

aurki genitzake. Gaitzak kutsa ditzakete.

Gipuzkoan urria da.

Tamaño: 20-25 mm.

Aparece en primavera y verano.

Es la cucaracha típica. De color marrón oscuro y antenas largas. Tienen las patas llenas de púas.

Las hembras depositan de 20 a 50 huevos dentro de una cápsula. Pasan por 6 estadios para completar el ciclo biológico.


Son activas de noche. Se alimentan de cualquier clase de comida y las podemos encontrar en la naturaleza y en nuestros hogares, buscando restos de alimentos si tienen alguna pequeña grieta por donde introducirse. Puede transmitir enfermedades.

Es escasa en Gipuzkoa.

# INTERNET: ORRI INTERESGARRIAK / PAGINAS DE INTERÉS

Mónica Menéndez Muñiz

[www.ipmworld.umn.edu/cancelado/Spchapters/RaoSp.htm](http://www.ipmworld.umn.edu/cancelado/Spchapters/RaoSp.htm)




Zirikatzen duen zimitza.

*Lygus hesperus*-eti buruz eta berari aurre egiten dioten harrapakariei buruz argibideak jaso nahi badituzu edota zerorrek landatutako marrubiak nahi izanez gero, orri hau oso interesgarria da. Akaro batzuk ere aipatzen dira, baita euli zuriak, afidoak eta lepidoptero izurriak ere.


El chinche que "chinch".

Página muy interesante para todos aquellos que quieran cultivar sus propias fresas, y para los que buscan información sobre el *Lygus hesperus* y sus depredadores naturales. También hace referencia a ciertos ácaros, mosca blanca, áfidos y plagas de lepidópteros.



ZORAGARRIA! Intsektu toxikoei buruzko orri honetan, joku bat aurkituko duzu non gure globulo gorriak salbatzeko, kolore berdeko intsektu gaiztoak akabatu beharko dituzun. Gainera joku gehiago ere badaude, baita ezustekoak ere. OSO DIBERTIGARRIA!

¡SUPERGUAY! En esta página sobre insectos tóxicos podéis encontrar un juego donde hay que matar a los insectos malos (de color verde) para salvar a nuestros glóbulos rojos. Además encontrarás muchos más juegos y sorpresas. ¡MUY DIVERTIDO!



# MINUZIAREN BERTSIOA LA VERSIÓN DE LA MINUCIA

Santiago Pagola Carte

Aita eta aitona urre koloreko burudun orratzak nituen. Leinu noble batekoa naiz, beraz; beti pabonatuak izan gara, hau da, oso beltzaranak. Nire ama ere, orratz luze eta heldulekuduna izanik, pabonatu zen. Beti zeukan hizpide gure leinuaren "beltzarrantasuna"! Bueno, iraganean ari naiz, baina egia esan ez dakit ziur mundu honetan jarraitzen duten ala ez, material entomologikoaren bizitza nahiko korapilotsua da eta. Kontatuko dizuet geroago kontutxoren bat.

Ezer baino lehen hobe daukat neure burua aurkeztea. Txe Pin da nire izena eta minuzia pabonatu naiz, 0,20 mm-koa. "Zein argal!" esango didazue... ez pentsa, 0,10 eta 0,15 mm-koak ere badira! Hori bai, txiki samarra naiz, baina ez dit axola, umore onez eramaten dut hori. Areago, oso umore zorrotza dudalakoa nago. Txekiar Errepublikan jaio nintzen eta berehala ekarri ninduten hona bizitzera, Donostiara. Zaletasunen artean, ikaragarritzko jauziak egitea dut gustukoena, eta gero guztion begiradetatik galtzea, batzuetan artilezko arroparen batean katigatuta, edota alfombra eta moketetan... Ai, ze gozamen moketak..! Eta, gainera, aspaldian galdutako lagunene batekin berraurkitzeko aukera ematen dizute. Behin, jauzi

Mi padre y mi abuelo fueron alfileres del tres de cabeza dorada. Pertenezco a una estirpe noble, siempre hemos sido pavonados. Incluso mi madre, que era aguja enmangada, era pavonada. ¡Y cómo se pavoneaba por ello! Bueno, hablo en pasado, pero en realidad no sé si siguen en el mundo de los vivos, ya que la vida del material entomológico tiene su intrínquilis; luego os cuento algún detalle.

Mejor, primero me presento. Me llamo Che Pin y soy una minucia pavonada, de 0,20 mm. "¡Qué fina!" me diréis... ¡pues las hay de 0,10 y de 0,15 mm! Lo que sí soy es bajita, pero no me importa, lo llevo con humor. Es más, diría que gozo

de un humor muy afilado. Nací en la República Checa y al poco tiempo me trajeron a vivir aquí, a San Sebastián. Como aficiones, me gusta dar enormes saltos y después perderme de la vista de todo el mundo, a veces enganchada a alguna prenda de lana o a las



alfombras y moquetas... ¡Ay, las moquetas..! ¡Qué delicia! Incluso te permiten reencontrarte con alguna vieja amiga

horietako batean, ikaskide izandako bat topatu nuen alfonbra ilun batean: hiru urte zeraman bertan izkutaturik. Oso konkortuta eta ia-ia puntarik gabe zegoen arren, zein gogor heltzen zien hari sintetikoiei..!

Nire aldetik, aspalditik ez dut jauzirik egiten. Lanean ari naiz... 24 ordu egunekeo! Esaten nizuenez, material entomologikoaren bizitza ez da ulertzen erraza. Azken urteotan neuropteroei emana nago... gau eta egun. Egia esan, M. Roby-taz baino ez naiz arduratzen. M. Roby 1999.ean bere bizitza Zientziari eman zion Oiartzungo hemerobido bat da. Lehenago, laborategi-laguntzaile modura egin nuen lan hilabete batzuetan zehar. Zenbait intsekturen antenak eta tartsoak eustea zen nire eginkizun nagusia. Aldi baterako lanak ziren (intsektua lehortu arte zirauten), baina mundua ikusteko aukera paregabea ere bai: gaur armairu batean, hurrengo astean beste batean... Eta noizbehinka, nire kirol gustukoena: jauziak.

Azken urteotan gauzak aldatu dira niretzat. Beirazko sabai deskapotableko kutxetan bizi izaten naiz eta betibeti M. Roby-rekin.; bueno, berarekin eta berarengan. Berarekin, bere gorputza trampoline moduko batean pausaturik egon dadin; eta berarengan, bere "2. faseko" mugimenduak baimentzeko. Hau da, beren bizitza Zientziari ematen dioten intsektuek (oraindik ez dakit honela den ala bizitza Zientziak kentzen dien) ezin dute gehiago beren kabuz mugitu, eta orduan 2. fasera sartzen dira, zeinean mugiarazten dituztenak entomologo

que se perdió hace tiempo. Una vez, en un salto de esos, me encontré en una oscura moqueta con una compañera de la escuela que llevaba 3 años escondida. Estaba muy encorvada y casi sin punta, pero cómo se aferraba a las fibras sintéticas la condenada..!

Por mi parte, hace tiempo que ya no salto. Estoy trabajando... ¡las 24 horas del día! Como os decía, la vida del material entomológico no es fácil de entender. Yo me dedico a neurópteros desde hace unos años... día y noche. En realidad, sólo me dedico a M. Roby, un hemeróbido de Oiartzun que entregó su vida a la Ciencia en 1999. Antes tuve la suerte de trabajar como ayudante de laboratorio durante unos meses, en los que me dedicaba a sujetar antenas y tarsos de algunos otros insectos. Eran trabajos temporales (hasta que se secaba el insecto en cuestión), pero te permitían ir de aquí para allá viendo mundo; hoy en un armario, al cabo de una semana en otro... Y de vez en cuando, mi deporte favorito: los saltos.

Desde hace unos años, las cosas son diferentes para mí. Habito en cajas con techo de cristal descapotable y siempre con M. Roby.; bueno, con él y en él. Con él, para que su cuerpo repose en una especie de trampolín blanco; y en él, para facilitar sus movimientos "de fase 2". Y es que, los insectos que entregan su vida a la Ciencia (en realidad no sé si es así o si la Ciencia se la arrebató) dejan de moverse a su libre albedrío... y pasan a la fase 2, en la que son las manos de un/a entomólogo/a (creo que de la familia Homínidae, que, por su tamaño, no deben de ser insecto-

baten eskuak baitira (entomologoak Hominidae familiakoak omen dira; tamainagatik, behintzat, ez dira intsektuak).

Bueno, eta 3. faseko mugimenduen gehiegizkoa da. Batez ere guretzat, material entomologikoarentzat, nahigabe-edo baikoaz edonora intsektuekin batera. Mugimendu hauek benetako bidaiak dira, Iberiar Penintsulan, Europan edo Amerikan zehar. Gehienetan museoak eta antzekoak bisitatzen ditugu, baina barruraino sartuz, ez betiko bisita tipikoa eginez. Duela gutxi, munduko 8 herritan egondako orratz iparamerikar bat ezagutu nuen Madrilan. Dirudienez, bere lanak zerikusia du oso *tipo* garrantzitsu batekin...

...Hara! Utzi behar zaituztet. Nagoen armairuaren zirrikitu batetik ikusten ari naiz gelaren argia piztu dela eta betiko hominidoa beste batekin dato-rrera hemerobidoetat mintzatzen... Glup, M. Roby aipatu dute! Gaur, uste dut, aterako gara paseatzera...


tos...) los que los trasladan.

Bueno, y lo de los movimientos de fase 3 ya es una pasada, sobre todo para nosotros, el material entomológico, que vamos siempre adosados, como quien no quiere la cosa. Este tipo de movimientos son viajes en toda regla, por la Península Ibérica, por Europa, o incluso hasta América. Casi siempre vemos museos y cosas así en estos viajes, pero por dentro, no la típica visita que hace todo el mundo. Hace poco conocí en Madrid a un alfiler norteamericano que había visitado ya ¡8 países! Parece ser que su trabajo tiene que ver con un *tipo* muy importante...

...¡Vaya! Os tengo que dejar. Por una rendija de este armario veo que se ha encendido la luz de la habitación y oigo al homínido de siempre que se aproxima hablando con otro sobre hemeróbidos... ¡Glup, han mencionado a M. Roby! Creo que hoy salimos de marcha...

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:




kutxa

zuri esker  
gracias a ti




# INTSEKTUEKIN JOLASEAN JUGANDO CON INSECTOS

Faustino Uranga



Orria fotokopiatu ondoren, moztu hiru zimitzak eta hiru antenak. Hori egin eta gero, ia nola antolatzen dituzun zati guztiak, hiru zimitzek bina antena izan ditzaten.



Fotocopiar la hoja y recortar los tres chinches y las tres antenas. Una vez hecho esto hay que colocar las piezas de tal manera que cada chinche debe de aparecer con sus dos antenas correspondientes.



Arkatza paperetik altxa gabe, 9 kakalar-dotetik pasako diren lau marra zuzen egiteko gai al zara?

¿Eres capaz de trazar cuatro líneas rectas a través de estos 9 escarabajos sin levantar el lápiz del papel...?

Aurreko zenbakiko erantzunak/ Respuestas al número anterior:





*El olfato más sensible de todos los insectos lo tiene la polilla luna de la India: puede detectar feromonas de otro ejemplar a una distancia superior a los 11 km.*

Una pareja de moscas comunes puede dar lugar a 300.000.000.000.000 de moscas en una sola temporada. Con una especie tan prolífica, ni el frío ni los insecticidas pueden acabar con ella.

**LA SANGRE DE ALGUNOS INSECTOS ES AZUL**




Los oídos de los grillos están situados bajo la rodilla de cada pata delantera. Forman una protuberancia en forma de tambor.



El nido más profundo lo construye la termita del desierto, lo hace a 40 m. bajo tierra.

# EUSKARA

Zure unibertsoan



[www.gipuzkoa.net/kultura](http://www.gipuzkoa.net/kultura)

Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentua  
Departamento de Cultura, Euskera, Juventud y Deportes



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
**Diputación Foral de Gipuzkoa**